

Miquel Siguanen gogoeta sarean

EUSKARAREN BERRIPAPERAN Miquel Siguanen hizkuntzalari katalan ospetsuaren artikulua dator. *Hizkuntzak eta globalizazioa* du izena artikulua eta aurrerapen teknikoak globalizazioa nola eragin duen, eta horrek hizkuntzengan izan duen oihartzuna aztertu du.

www.euskara.euskadi.net/r59-bphizk/eu/

Kontseiluaren 10. urteurrena

ABENDUAREN 13AN ospatuko du Euskararen Gizarte Erakunde

Kontseiluak 10. urteurrena. Barakaldoko (Bizkaia) BECen izango da ekitaldia *Pauso bat barago* lema-pean. Leloaren aldaketa ekarriko dute gogora, alegia, *Euskaraz bai* bihurtuko da orain arteko *Bai euskarari*. Hau da, euskararen aldeko jarrera erakusteaz gain euskaraz egin egin behar dela.

EraLan Topaketa

AZAROAREN 13AN izango da EraLan Ikerketa Proiektuaren Topaketa. Zamudioko Parke Teknologikoan egingo den topaketan lan munduan euskara erabiltzeko hainbat hausnarketa eta adibide praktiko aurkeztuko da. www.soziolinguistika.org/eralan

Hizkuntza gutxituen biltzarreko edukiak sarean

UNESCO ETXEAK *Hizkuntza gutxituen erronkak globalizazio aroan* biltzarrean hainbat adituk emandako hitzaldiak eskuratu jarri ditu webgunean (www.unesco-eh.org). Horien artean dira Fernand de Varennes, Suzanne Romaine, Marielle Rispail eta Luistxo Fernandez.

BAHEA

www.blogak.com/garaigoikoa blogean Txerra Rodriguezek “Hegemonia edo (autozentroa)” izeneko artikulua idatzi du, gero eta gehiago aipatzen diren hegemonia esparruei buruz: “Euskaldunon komunitateak hegemonia esparruak eraiki behar ditu. Esaldi indartsua, bezain sinplea. Ba, nire ustez euskalgintzaren adar guztiak bat datoz esaldi honekin. Izan fishmanzale, izan odriozolazale, izan txepetxale, izan Kontseilua, Topagunea, Berria, euskara elkarte, Kafe antzoki edo dena delakoa. Gainera, askok erabili dute era batera edo bestera esaldi hau azkenaldi honetan —nik neuk ere autozentramendua aipatu nuen—: Jon Sarasua, Mikel Irizar, Mikel Zalvide, Kike Amonarriz, Joxe Manuel Odriozola [blogean horien hausnarketan zuzeneko lotura dago].

Euskaldunon komunitateak hegemonia esparruak eraiki behar ditu. Eta zer demontre da hori? Ba, euskaldunok euskara nagusi izango diren esparruak eraiki behar ditugula, gure komunitatea biziberritzeko, indartzeko edo salbatzeko. Bakoitzak erabili dezala berak nahi duena. Batzuek esparru fisikoak nahiago izango dituzte (UEMA kasu), beste batzuek berriz esparru sozialak —auzo-etxe-komunitate hurbila, nahiz hurbiltasun soziala—, edo bestelako esparruak —komunikabideak, kultura, lan mundua, ...—.

Idea totem honen inguruan euskalgintza guztia biltzeko modurik bai? Behintzat Maltzagaraino, horrek esaten zuen moduan”.

TALAIAN

Kutxa bakarra Euskal Herriarentzat

Berriro hasi da EAEko aurrezki kutxen bat-egitearen eztabaida. Biko fusioaz hitz egin da, BBK eta Kutxaren artekoaz, Arabako Vital eta Nafarroako CAN kanpoan utziz. Ikuspegi lokalista, eta gehienez, autonomista erabili da, Euskal Herria alboratuz. Euskal Herriak aurrera egiteko finantza erakunde indartsuak behar ditu eta aurrezki kutxa bakar hori izan liteke aukera.

Zertarako nahi dugu kutxa bakarra? Ez dugu banketxe moduan jardungo duen finantza erakundea nahi, alegia, eremu errentagarriena den horretan inbertituko duena, armagintzan esate baterako (BBVak eta beste hainbat erakunde hala egin dute). Ez dugu nahi ahalik eta etekin handiena atera eta bere akziodunen, eta bereziki akzio-gehiengodunen artean, ondo geratu nahi duen finantza erakundea. Gure gizarte eta herriaren beharrak aseko dituen kutxa bakarraren alde egingo dugu. Euskal Herrian inbertituko duen eta inbertsio espekulatiboak (Kutxari Andaluzian eta Levanten gertatutakoak gogoratu) egingo ez dituen kutxa bakarraren alde egingo dugu. Euskal Herria sozialki eta ekonomikoki egitura-ko duen kutxa bakarraren alde egingo dugu. Azpikontratazioa eta eskastasuna desagerraraziko dituen lan kontratazio eredu ezarriko duen kutxa bakarraren alde egingo dugu. Gizarte ekintza edukiz berrituko duen kutxa bakarraren alde egingo dugu. Gizarte zibilaren, eta ez alderdi politikoaren, tresna izango den kutxa bakarraren alde egingo dugu.

Juan Mari Arregi

Eskoizian 2010ean izango da kontsulta

MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

HERRI KONTSULTAREN aurka-ko debekuaurrean, Jaurlaritzako hirukoak eta Aralarrek protesta egin zuten joan den larunbatean, *Hitza Hitz* festaldarrikapen ekitaldia burutuz. Ezintasuna, zuhurtasuna eta kalkulu politikoan kudeatutako protestak ordezkatu zuen herri kontsulta. Ezintasuna, herri kontsultaren alde direnen eta Estatuaren arteko indar harremana-



arte desorekaren ispilu izan delako. EAJk eta PSOEk Espainiako aurrekontuetan lortutako akordioaren izaerak erakusten du zuhurtasuna eta kalkulu politikoaren nondik norakoa. Jeltzaleen pragmatismoaren keinu indartsuenetakoa izan da PSOE eta EAJren arteko trukaketa berri hau; eta Josu Jon Imaz EBBren lehendakaritzara heldu izana eta transbertsalismoaren diskurtsoa ez zela kasualitatea adierazten du. Iru- diak irudi, protestarako molde berria eta tinkotasunaren arteko desoreka oso agerikoa izan da Gernika eta Gasteiz sinbolikoki lotu dituen hitz multzoan.

2007ko irailean Ibarretxe lehendakariak, hitzaldi berehaldikoan, herri kontsultaren proiektua iragarri zuenetik honen alde eramandako ekimen andana ez da txantxetako izan. Horien artean azpimarragarria Jose Luis Rodriguez Zapateroren itun berri bat bideratzeko egindako saioa, Loiolako aurre akordioak ere berriz mahai-gainera ateratzea ere ekarri zuena. Ibarretxe lehen larunbatean, azken urtea herri kontsulta janzen jardun du Eusko Jaurlaritzak, erabaki eskubidean sinesten duen gizarte esparruaren eskuetan ilusio maila bat sortuz. Erabaki ahalmena gauzatu eta gatazkarekiko irtenbide gose diren sektore oso

zabalen nahiak asetzetik urruti gertatu da herri kontsultaren ekimena. Bat gehiago etsipenen zorroan biltzeko. Bat gehiago Estatu eta konstituzionalismoaren sendotasuna erakusteko.

ABERTZALETASUNAREN krisiaz gero eta gehiago hitz egiten da azken boladan eta ez da arrazoirik falta hausnarketa horretan. Sisiforen ahalginean behin eta berriz jarduteak aldapa are nekosoagoa egiten du, baina gainera harriari bultzaka ari direnen desadostasunek gorakoan arrakala sakonak sortzen badituzte...

Hortik urlia eta sandiaren deialdiak. Lekuaren sinbologiarekin norabidea ere finkatuz, ELAk Lizarragaraziren aldarri egin du ELBko nekazariak bultzatutako Merkatal Ganberatik. Ezker abertzaleak, jazarpenak uzten dizkion parentesi horietako bat baliatuz, Kursoaletik egin du independentziaren aldekoak biltzeko deia. Hirukoak eta Aralarrek, Hitza Hitz tartean, herri kontsultaren alde indarrak biltzera deitu dute, berau lehenago edo geroago gauzatu delakoan. Eta EAk, hitz jolasekin nahiko ez antza, eta independentziaren aldeko bere aldarri tinkoa luzatu berri du Lizarratik.

Ez du ez hodeiertz samurrik abertzaletasunak. EAJren bi arima ohi-

leak lehian, alderdiaren lema eta etorkizuneko erronkak nola uztartu asma ezinean, batean batek ekimena hartuz eta hurrengoan besteak burua erakutsiz. Legez kanpoko ezker abertzalea biolentzia, errepre- sioa eta ilegalizazioaren gurpilean jiraka. Eta gainerako indar abertzale-

leak mugimendu soberanista eratze-ko ohiko nahi eta ezinean.

Eskoziako SNPk kongresua egin zuen joan den asteburuan eta 2010erako independentziarako kontsulta egingo dutela berretsi du. Laborista eta kontserbadore britainiarrek irentsia dute egingo dela, eta independentziaren kontrako aurrekainan dira jada. Ondo da Zapaterori esatea ea han zergatik bai eta hemen ez, baina garrantzitsua da erabaki eskubidearen aldeko indarrek galdera hori beren buruei egitea. Eta erantzuna ezin da biolentziaren estrategian bakarrik ezkutatu. Hori ere bai, baina ez hori bakarrik.

URRATS SENDOAGOEKIN ari da Patxi Lopez, abertzaletasunaren zuloak agertu eta bere alternatibaren sendotasuna gizarteratuz. Tentuz eta beldurrik eragin nahi izan barik, Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeetan hurbildutakoak mantendu guran, sozialistek euskal gizartearen eraldaketaz predikatzen dituztenak benetakoak direla erakusteko gogoz. Kontrakoa izango zela bazirudien ere, Estatuak herri kontsultaren gaiari emandako dandateko irmoak bere proiektuaren –konstituzionalismoaren– sendotasuna erakusteko baliatzen ari da oraingoz.